

BIZTANLERIA:

2050.urtean, Zumaiaiko jaiotze data nolakoa izango da?

- a) Jaiotze data igo egingo da.
- b) Jaiotze data jeitsi egingo da.
- c) Jaiotze datak berdin jarraituko du

Ba nire ustez jaiotze tasa beste herri batzuekin konparatuta zerbait handiagoa izango da. Bereziki Zumaia herri oso erakargarria eta atsegina delako bizitzeko

2050. urtean Zumaian nolakoa izango da bizi itxaropena?

- a) Bizi itxaropena handitu egingo da
- b) Bizi itxaropena murriztu egingo da
- c) Bizi itxaropenak berdin jarraituko du

Ba pentsatzen det, ba, bueno, handitu egingo dala ze hamarkadero gure bizi kalitatia dexente hari dalako handitzen.

EKONOMIA:

2050.urtean, Zumaiaiko langabeziaren egoera nolakoa izango da?

- a) Langabeak ugariagoak izango dira
- b) Langabezia kopurua murriztu egingo da
- c) Langabeziaren egoerak berdin jarraituko du.

Hori jakitea ez da erraza, baina bueno, nik usten det egoera nahiko antzekoa izango dela. Baldin eta ekonomi baldintzak berdin jarraitzen badute eta guk ere jarraitzen badegu atseginak ez diren lanak baztertzen edo alde batera uzten.

2050.urtean uste ahal duzu Zumaian denda komertzialik egongo direla? (adibidez zara edo pull and bear)?

- a) Bai
- b) Ez
- c) Agian

Ba bueno, egia esan, nahiko zaila ikusten dut horrelako frankiziak Zumaia bezelako herri txikitik jartzea. Pentsatzen det horrelako dendak azkenian jende asko behar dute aurrera eramateko eta hiri handietan egoten dira beti, biztanleria handiagoa izaten delako.

JASANGARRITASUNA:

2050. urtean, zein izango da gehien erabiltzen den mugitzeko modua?

- a) Kotxea
- b) Bizikleta
- c) Garraio publikoa

Nire ustez, zalantzarik gabe, eta espero det, ba garraio publikoa izatea. Bestela, horrela jarraituz gero, gizartea ekologia aldetik ez da jasangarria izango, kontuan hartuta gaur egungo garraioak nola kutsatzen duten.

2050. urtean nolakoa izango da Zumaiarren kotxe elektrikoaren erabilera?

- a) Oso ugaria
- b) Beharrezkoa denean
- c) Ez da erabiliko

Aurreko galderarekin lotuta, nahitanahiez nik usten dut ugaria izan beharko dula. Lehen esan deten bezela gizarte pixkat jasangarria nahi baldin badugu izan erabili egin beharko ditugu kutxatzen ez dituzten garraioak.